



HEZKUNTZA SAILA

Hezkuntza Sailburuordetza
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Educación
Dirección de Aprendizaje e Innovación
Educativa

EBAZPENA, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendariarena, zeinaren bidez izendatzen dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoak 2024-2025 ikasturtean Eskola Adimentsua programa garatzeko irakasle mentoreak izango dituztenak.

Hezkuntzako sailburuordearen 2024ko ekainaren 24ko Ebazpenak, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2024-2025 ikasturtea antolatzeari buruzkoak; eta Hezkuntza sailburuordearen 2024ko ekainaren 24koa Ebazpenak Bigarren Hezkuntzako institutueta 2024-2025 ikasturtea antolatzeari buruzkoak, Eskola Adimentsua programa ezartzen dute, curriculumaren digitalizazioaren eta ebaluazioaren atalaren barruan, pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika garatzeko. Programa horren arabera, mentoreak egongo dira, eta ikastetxeak lagundu, aholkatu eta prestatuko dituzte. Berritzegune Nagusirekin lankidetzan, mentore horiek laguntza eta orientazioa eskainiko dute pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa eguneroko jardueretan integratzeko baliabideak sortzeko.

Mentoreak hautatzeko, Hezkuntzako sailburuordearen 2022ko apirilaren 26ko Ebazpenean araututa dagoen DigCompEdu Gelan programaren mentoretza digitalaren eredua jarraitu da. Ebazpen horren bidez, ikastetxeak eta irakasle mentoreak hautatzeko prozedura ezarri zen, mentoretza digitaleko DigCompEdu Gelan sarea eratzeke, euskal hezkuntza-sistemako ikastetxe publikoetan digitalizazioa eta irakasleen kompetentzia digitala sustatzeko helburuarekin.

Horrenbestez, ikastetxeetako eguneroko jardueretan pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa garatzeko proposatutako ikastetxeen eta irakasle mentoreen adostasuna lortu ondoren,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- 2024-2025 ikasturtean mentoretza-lanak egingo dituzten ikastetxeen eta irakasleen zerrenda argitaratzea (I. Eranskina).

Bigarrena.- Ikastetxeak, proposatutako irakasle mentoreak bertan plaza badu 2024-2025 ikasturtean, esleitutako irakaslea ordezkatzeko eskatuko du, ohiko bideak erabiliz, 2024-2025 ikasturtearen hasieran mentoretza-lanak hasten direnean (irailaren 1ean).

Hirugarrena.- II. eranskinean adierazitako ikastetxeei ez zaie mentorarik esleituko IKHaren bidez, proposatutako irakasleak euskal hezkuntza sisteman ikasturte osorako lanaldi osoko plaza bat lortu dutela ziurtatu arte.

Laugarrena.- Ikastetxeen eta irakasle mentoreen konpromisoak III. eranskinean islatzea.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren datan

Amaia Agirre Pinedo
Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria



I. ERANSKINA

AUKERATUTAKO IKASTETXEAK

| Lurraldea | Código | Ikastetxea | Irakasle Mentorea | Ebazpena |
|-----------|--------|--------------------------------|-------------------|----------|
| Araba | 010515 | CEIP Mariturri HLHI | 30693754R | Esleitua |
| Gipuzkoa | 012277 | CEIP Fleming Herri Eskola HLHI | 44161889A | Esleitua |
| Gipuzkoa | 012282 | IES Oianguren BHI | 72457629Q | Esleitua |
| Gipuzkoa | 012292 | IES Lizardi BHI | 44140959A | Esleitua |
| Gipuzkoa | 012967 | IES Hirubide BHI | 44562706E | Esleitua |
| Gipuzkoa | 012970 | CEIP Plaentxi HLHI | 72579497F | Esleitua |
| Gipuzkoa | 012976 | CEIP Talaia HLHI | 15247951D | Esleitua |
| Gipuzkoa | 013006 | IES Arrasate BHI | 15383167P | Esleitua |
| Gipuzkoa | 013522 | CEIP Bizarain Ikastola HLHI | 30656879H | Esleitua |
| Bizkaia | 014073 | CEIP José Etxegarai HLHI | 45661450X | Esleitua |
| Bizkaia | 014232 | CEIP Concha HLHI | 78910724R | Esleitua |
| Bizkaia | 014287 | CEIP Gorliz HLHI | 78886836X | Esleitua |
| Bizkaia | 014327 | CEIP Larrabetzu HLHI | 14611573H | Esleitua |
| Bizkaia | 014396 | CEIP Virgen de la Guía HLHI | 30606627K | Esleitua |
| Bizkaia | 014520 | CEIP Anaitasuna Ikastola HLHI | 72576486D | Esleitua |
| Bizkaia | 014523 | CEIP Geroa Ikastola HLHI | 78911656J | Esleitua |
| Bizkaia | 015020 | CEIP Barrutia HLHI | 45665437H | Esleitua |
| Bizkaia | 015307 | IES Fray Juan de Zumarraga BHI | 30638343C | Esleitua |
| Bizkaia | 015342 | CEIP Zabalarra HLHI | 30664085W | Esleitua |

Esleitua: Hautagaiak mentoretza-lanak egingo ditu bere ikastetxean eta erreferentzia-eremuko esleitzen zaizkion ikastetxeetan.

II. ERANSKINA
BAIEZTATZEKO DAUDEN ZENTROAK

| Lurraldea | Kodea | Ikastetxea | Irakasle mentorea | Egoera |
|-----------|--------|----------------------------|-------------------|----------------------------|
| Araba | 010041 | CEIP Ramiro de Maeztu HLHI | 72484341K | IKHAn plaza lortu behar du |
| Gipuzkoa | 012244 | CEIP Felix Samaniego HLHI | 44139670W | IKHAn plaza lortu behar du |
| Gipuzkoa | 013431 | IES Beasain BHI | 72498135L | IKHAn plaza lortu behar du |
| Bizkaia | 014010 | IES Dolores Ibarruri BHI | 16080961M | IKHAn plaza lortu behar du |
| Bizkaia | 014189 | IES Miguel de Unamuno BHI | 45665843X | IKHAn plaza lortu behar du |
| Bizkaia | 014190 | IES Txurdinaga Behekoa BHI | 16080697V | IKHAn plaza lortu behar du |
| Bizkaia | 015143 | IES Uribe-Kosta BHI | 30657410C | IKHAn plaza lortu behar du |

III. ERANSKINA KONPROMISOAK

Bai irakasle mentorizatzaileek bai ikastetxeek bete beharko dituzte mentorizazio-lanei dagokienez Hezkuntzako sailburuordearen 2024ko ekainaren 24ko Ebazpenean (Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2024-2025 ikasturtea antolatzeari buruzkoa) eta Hezkuntzako sailburuordearen 2024ko ekainaren 24ko Ebazpenean (Bigarren Hezkuntzako institutuetan 2024-2025 ikasturtea antolatzeari buruzkoa) jasotako betebeharrak.

Nolanahi ere, honako hau bermatu beharko da:

- Hautatutako mentoreak bere lan-jardunaldia Eskola Adimentsuaren sareko mentoretza-zereginetara bideratuko du soilik.
- Mentoreen lanaldiaren heren bat jatorrizko ikastetxearen zereginetan arituko da, beti ere Eskola Adimentsua programak dituen helburuak lortzeko ikastetxean bertan. Beste bi herenetan Euskal Hezkuntza Sistemaren programa garatzeko zereginetan jardungo dute. Ordu horietan barne hartzen dira koordinazioak, prestakuntza lanak (NOOC, mintegiak, tailerrak,...) eta gainontzeko eskakizunak, beti ere Berritzegune Nagusiko aholkulariekin lankidetzan.
- Mentore bakoitza ikastetxe talde baten erreferentziazko bidelagun izango da. Dagozkien ikastetxe horiei pentsaera konputazionala, programazioa edota robotika euren ikastetxeetan integrazteko aholkularitza eskainiko die.
- Irakasle mentoreen lan-ordutegia jatorrizko ikastetxeari dagokiona izango da, eta bai ikastetxea bai esleituta dituen gainerako ikastetxeek izan ditzaketen beharrei erantzun beharko die.
- Ikastetxeak tresna eta bitarteko egokiak jarriko ditu irakasle mentoreak bere eginkizunak modu presentzian zein telematikoa bete ditzan.
- Halaber, irakasle mentore bakoitzak honako hauek bete beharko ditu:
 - ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea eta horien arabera beharrezkoak diren baliabideen balorazioak eta proposamenak sortzea (baliabideen zuzkidura gauzatzen laguntzea).
 - asteroko koordinazio-bilera batean parte hartze, bai eta beharrezkoak izan daitezkeen beste bilera batzuetan ere programa eraginkortasunez aurrera eramateko. Bilera horietan zereginen jarraipena, prestakuntza, ebaluazioa eta lanen koordinazioa egingo dira.
 - koordinazio-bilerez gain, topaketa-une gehiago behar badira, mentoreek zeregin horiek lehenetsiko dituzte eta Berritzeguneko aholkularitzekin elkartzeko uneak adostuko dituzte. Berritzeguneak prestakuntza eta laguntza eman beharko die irakasle mentoreei, irakasleek beren eginkizunak eraginkortasunez bete ditzaten.
 - pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotikaren programa bultzatzeko antolatzen diren ekintzetan parte hartzea.
 - gainerako mentoreekin eta Berritzeguneko aholkularitzekin koordinatzea, sor daitezkeen erronketara egokitzeko eta horiei erantzuteko.
 - pentsamendu konputazionala, programazioko eta robotikako jardunbide egokien hedapena identifikatu, partekatu eta sustatzea.
 - amaierako ebaluazio-txostena egitea, Berritzeguneak emandako jarraibideen arabera.